

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1065/2008/EE ERABAKIA, 2008ko urriaren 22koa, Kontseiluaren 85/368/EEE Erabakia indargabetzen duena, Europako Erkidegoko estatu kideetako lanbide-heziketen arteko kualifikazioen elkarrekikotasunari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DECISIÓN N° 1065/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 22 de octubre de 2008, por la que se deroga la Decisión 85/368/CEE del Consejo, relativa a la correspondencia de las calificaciones de formación profesional entre los Estados miembros de las Comunidades Europeas*». (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 288/4, 30.10.2008)

1065/2008/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 288/4, 2008/10/30koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1065/2008/EE ERABAKIA
2008ko urriaren 22koa.**

Kontseiluaren 85/368/EEE Erabakia indargabetzen duena, Europako Erkidegoko estatu kideetako lanbide-heziketen arteko kualifikazioen elkarrekikotasunari buruzkoa.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatua aztertu dute, eta, bereziki, haren 150. artikuluko 4. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽¹⁾ aztertu dute, Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuko 251. artikuluan ⁽²⁾ araututako prozedura bete dute, Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Legeria hobetzeari buruzko erkidegoko politikek nabarmendu egiten dute zeinen garrantzitsua den estatuen barne-legeria eta erkidegoko legeria sinplifikatzea. Izan ere, sinplifikatze hori erabakigarria da enpresen lehiakortasuna handitzeko eta Lisboako Agendan ezarritako helburuak betetzeko.

(2) Kontseiluaren 85/368/EEE Erabakia ⁽³⁾ aplikatzea ez da eraginkorra izan lanbide-heziketetako kualifikazioen arteko elkarrekikotasuna lortzeko, beste estatu kide batzuetan lan bila dabiltzan langileentzat.

(3) 85/368/EEE Erabakian xedatutako prestakuntzak deskribatzeko eta konparatzeko metodoak eta planteamenduak ez datoz bat gaur egun hezkuntza- eta prestakuntza-sistemetan aplikatzen direnekin.

(4) 85/368/EEE Erabakia ordeztu egingo du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko apirilaren 23ko Gomendioak, etengabeko ikaskuntzako kualifikazioen Europako esparrua sortzekoak ⁽⁴⁾.

(5) Horrenbestez, egokia da 85/368/EEE Erabakia indargabetzea.

ERABAKI HAU HARTU DUTE:

1. Artikulua

85/368/EEE Erabakia indargabetzen da.

2. Artikulua

Erabaki hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei eguneko epean sartuko da indarrean.

3. artikulua

Erabaki honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko urriaren 22an.

Europako Parlamentuaren izenean Lehendakaria H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean Lehendakaria J.-P. JOUYET

(1) C 162 EO , 2008.6.25ekoa, 90. or.

(2) Europako Parlamentuaren 2008ko maiatzaren 20ko irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko irailaren 25ean hartutako Erabakia.

(3) L 199 EO, 1985.7.31koa, 56. or.

(4) C 111 EO, 2008.5.6koa, 1. or.

1065/2008/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 288/4, 2008/10/30koa)